

Santa Ageda koplak Errenterian

Mikel UGALDE

Sarrera

Santa Ageda bezperako ospakizunak direla eta, Errenterian azken hamarkada hauetan Ereintza taldeak kantatutako koplak biltzen dira ondorengo orriotan.

Urtez urte, jakineko herritar baten heriotza, omenaldi eta abar gogoan hartu izan ditu errenteriarrek Santa Agedako koplatan gogoratuz eta goralduz.. Pertsonak ez ezik, ordea, beste txoko eta parajeak ere kantatu izan ditu, hara nola, Santa Maria kaleko alpargata, Zumardiko iturria, Elizako dorrea txukundu eta argizatzea, udal-txe ondoko etxe berriak...Beste batzutan herriak bizi dituen arazoak ere haizatuko ditu: herri osoa ipurdiz gora jarri zuten saneamendu obra amaigabeak, krisia eta langabezia...Denetarik aurkituko du hona hurbiltzen denak.

Denetarik bai baina, zoritxarrez, dena ez du aurkituko. Hainbeste urtetan Ereintzatarren koplari izan den Kosme Lizasoren hainbat eta hainbat kopia galdu dira betiko, ez baititugu jaso. Eta Kosme aipatu dugunez, eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Ereintzatik.. Bertsoak taxutzeko eta osatzeko duen gaitasunaz gain, aipatzekoa da entzulearekin konektatzeko duen abildadea, bere saioetan erakutsi ohi duen oreka, ezinbesteko umoreari hartzen dion tamaina, iristen den lekuetan erakutsi ohi dioten harrera gozoa. Ondo merezitako txapela irabazia du Kosmek Ereintzatarrekin elkarlanean herriaren zerbitzura egindako guztiarengatik.

Esan bezala, tamalez, Kosme Lizasoren kopia askorik azaltzerik izan. Herriko Bideo tailerrak 1998an argitara emandako bidetik jasotako kopia batzuk eta 2001. urteko Santa Ageda bezperan berariaz hona ekartzeko magnetofonoz grabatuak besteak. Beste horrenbeste gertatzen zaigu azken urte hauetan koplari zereginetan talde gaztean ari ohi diren koplari gazteekin. Horregatik estimatzekoa da Jose-txo Oliverik hainbeste urtetako paperak gordetzen erakutsi duen ardura.

Taldearen eta koplarien lana aipatzeaz eta eskertzeaz gain, ezin ba isilean, izenik erakutsi gabe, urtero kopia berriak prestatzen aritu diren lagunen lan eskerga aipatu gabe utzi. Xabier Olaskoagak hasitakoari zintzo eta tinko eman dio jarraipena Sabin Irastortza bere llobak

Edukiei gagozkiola, Errenteriaren islatzen da kopia hauetan zehar. Kale eta tabernetan kantatutako gorabeherak, utzi gaituzten lagunak, ospe handiko pertsonaien aipamenak edota herritar xume askorekiko gorralpenak. Bertso laburretan zenbaitetan eragin handiko gertaerak jasotzen dira. Koplak, noski, ez dira kronika historikoak, baina bai historia osatzen eta aberasten duten istorioak.

Denboraren joanak Ereintzatarrei ere ez die barkatzen. Santa Agedako ospakizunen etorkizunari begira lasai egon gaitezke. *Jaioko dira berriak* kantatu zuen bertsolari errenteriarrek bete betean asmatu zuen Ereintzakoarekikoari dagokionez.

Jarraipena eta etorkizuna ziurtatuta dagoen arren, liburuxka honek badu halako belaunaldi baten testamentu ukitua ere. Urtez urteko koplak hainbeste hamarkadetan gordeak argitara emateak, nor-nahiren eskura jartzeak, lasaitu ederra ematen digu, egia esan.

Bertsoen testuari dagokionez, saiatu gara ahalik eta gehien errespetatzen. Grafari begira, euskara baturantz jotzeko asmoa erakutsi izan denean ortografi ukitu bat edo beste egin diogu. Beste zenbaitetan, ordea, kantatzeko eginikoak direla gogoan hartuz, bustidurak eta abar errespetatzea hobetsi dugu.

Norbaitek, zuzentasun premia aldarrikatuz, guraizeak dantzatzeko tentazlorik izan baleza, egon lasai. Hizkuntzak eta hizkerak biziak dira zorionez. Herri giroan sortuak eta herritarrok kantatutako bertsoak dira. Gureak direlako ditugu maite eta testuinguru horretan argitaratzen.

Nahi baino gehiago luzatu zaigun sarrera honekin amaitzeko, ez genuke Udalaren laguntza eskertu gabe utzi nahi. *Mori berea, zuzen-bidea* esaerari jarraiki, eskertzekoa da ondaretxo hau ondorengo belaunaldien eskutan jartzearren eskaini digun bultzada eta laguntza.

Santa Ageda. Bizitza

Santa Agedaren bizitzari buruz ez dugu, egia esan, xehetasun handirik. III. mendeko santa ote den diote hainbatek.

Seguru ez dakigu non jaio zen. Nahiz eta Palermok eta Cataniak gai honen inguruan eztabaida izan duten, badirudi azken honetan jaio zela 250. Heriotza, berriz, Catanian izan zela onartuagoa dagoen kontua da.

Tradizioak dioenez, Decio enperadoreak kristauen aurka antolatu zuen sarraskiaz ballatuz, Quitianus senatariak bereganatu nahi izan zuen baina ezezko borobila jaso zuen Jesukristorekin hitz emanda zegoela erantzun baitzion. Orduan, Quintianusek, amorruren amorruruz bularrak ebakitzeko agindua eman zuen. San Pedro agertu omen zitzaion eta sendatu egin omen zuen. Torturak, ordea, jarraitu egin zuen Catanian hiltzeraino.

Pello Zabalak *Naturaren mintzoa* lanean honelako argibideak ematen dizkigu:

"Santa Agata eguna! Santa ona onik bada. Hori esan nahi du behinik behin Agatha izenak: *agazos grezieraz ona* esan nahi duen hitza da. Katania aldeko neskatoa izan zela badakigu, neskatxa guztiz ederra. Apain eta Ilraina, eta ondasun askoko familiakoa. III. mendean, sofrimendu latzen artean garbitu zuten, *Santa Ageda santia, Muniketako lorea, martirioak pasa zenduzan zaindutearren fedea*, kantatzen zuen Zeanuriko Maurizia alaia"¹

Santa honen inguruan lelendak eta kantak ugari iritsi izan zaizkigu. Jose Maria Iribarrenek² dioenez, hona hemen Nafarroa

(1) *Naturaren Mintzoa*. Alberdania 2000, 58. or.

(2) Ikus Antxon Agirrerren *Santa Agueda* Eusko News 65. zk.

“Gloriosísima Santa Agueda de las santas sin rival,
que le cuertaron los pechos igual que se cuerta un pan”

Kepa Enbeita *Urretxindorrek*, Eibarren gorde izan dutenez, era fin eta jasoagoan kantatzen digu Santaren heriotza:

Illarteraño Jaungoikozale
garbi-garbia izan zan,
orbandu gura ez ebalako
bularrak ebai eutsezan;
Ziñopa eginda il zan;
orain dago zeruetan
-bere antzeko garbizaliak
gu ere izan gaitezan.

Bularretako minen aurkako zaindaritzat ere hartu izan da Santa Ageda. Kepa E

Catanian eta Etna sumendiaren inguruko lurraldeetan zaindaritzat daukate Santa Ageda. Tradizioak dioenez, 250. urtean, hau da Santa Ageda hil eta urte betera, sumenditik lur gori-goria gainera zetorkiela ikusirik, santari erregutu zioten eta honek sua bertan gerarazi omen zuen. Irudietan, martiriaren palma adarra eskuan duela ageri izan da.

Hainbat kanta eta olerkietako gaia izan da emakume honen jarrera, heriotzaren aurrean erakutsitako tinkotasuna, birjintasunaren defentsa... San Damasoren olerkien artean badira Santa Agedari eskainiak.

Lurralde askotan oso debozio handiko santa izan da. V. Menderrako Erroman basilika bat eraikia zutela badakigu

Zenbait tokitan “Santa Agedaren” ogia bedeinkatzen dute bere egunean.

Santa Ageda Euskal Herrian

Santa Ageda bezpera ez da Euskal Herrian bakarrik ospatzen. Beste zenbait herrialdetan ere gurearen antzeko moduan kanta ohi dituzte Santaren izenean eginiko koplak.

Adibide gisa, hona hemen Llantenen kanta ohi dutenaren muestra bat:

Celebremos a la Virgen Agueda
mañana es su festividad
y por eso venimos cantando
devotos a felicitar.

Lo que nuestros abuelos hacían
queremos hoy conmemorar
una misa a la Santa diremos
con lo que nos pudiera pasar.

Unos huevos, chorizo o plata
la patrona ya nos dará
para celebrar una comida
con la mayor fraternidad.

Gracias buena gente de esta casa
le damos la juventud,
y hasta el año que viene, si andamos
y que Dios guarde su salud.

¡Eup!

Azpmarragarria da, beraz, Santa honek duen itzala eta hainbat herrialdetan berarekiko erakusten duten jaiera. Kanpaigile eta kanpajoleen zaindari izateaz gain, santari bularrak moztu baitzizkioten, bularreko minen begiraletzat hartua izan da gure artean. Eta horien artean dugu Euskal Herria ere. Zenbait tokitan zaindari izendatua izan zen, eta badira bere izenean eraikitako eliz eta baselizak.

Egun da Santi mamiña koplatan Santa Agedaren heriotza aipatzen da duintasuna defendatzearren bizia eman zuen santa euskaldunontzat argibide eta eredu dela aldarrikatuz guk ere herri bezala gure nortasuna defenda dezagun.

Santa Ageda izena sarritan ageri da euskal lurraldeko toponimian zehar. Ezagunenarikoa Arrasateko Gesalibar bada ere, Santa Ageda baitzen auzo horren deltura, beste hainbat parajetan ageri zaigu santaren izena, hara nola Erriberrin, Jaurrieta bidean, Jaurrietaren Hego-Mendebaleko mendia, Sarries eta Zizurko mendiskak, Zadorra-

ra doan ibaiska, edota Mendozako haitzuloa, baserri izenak...Gure artean ongi errotutako izena dela ezin ukatu, beraz.

Aitortu beharra dago Santa Ageda bezperaren ospakizuna ez dela neurri eta maila berean euskal lurraldean jarraitu. Bizkaiko herrialdeetan tradizio sendo eta indartsu bezala irauin izan badu ere, Gipuzkoako zenbait tokitan berri samarra da koplak kantatzeko ohitura.

Nondik norakoa da, ordea, Santa Ageda ospatzeko ohitura? Non kokatzen da Santa Ageda bezperaren ospakizuna?

Santa Agedaren ospakizunaren iturburutik xurgatzeko neguko solstiziora jo beharra dago nahitaez. Gabon jaien ondorioan kokatzen da Santa Ageda. Abenduan, eguna labur eta gaua luzeenen den garaian, halako bihurtune batean aurkitzen da izadi osoa. Izadia bizi berri batera jaiotzen da eta horrela ospatu izan dute antzinako herrialdeek. Zelten herrietan, esaterako, jai egun hauek badute xarma berezia. Eguna laburren den unetik 40 egun pasa dela eta, ekinozioaren bide erdian bizi berrira hazten ari den izadiaren jai ospatuko da han eta hemen.

Izan ere eguzkia jaikitzen ari da eta eguna luzatzen. Pello Zabalak aipatzen duen esaera zaharretako batean, *San Sebastian ordu bete gehiago egunean ageri den bezala*. Goizean ordu laurden bat jan zailo gauari eta inularrean, berriz, 45 minutu.

Egun hauek, bestalde, esanguratsuak dira esaera zaharren munduari dagokionez, gehienbat eguraldiarekin zer ikusia dutenak. *Kandelario bero, elurra dator gero; Kandelario otz, negua joan da motz. Kandelario, elurra dario; San Blasak lagunduko dio. Kanderailu, sa-soinaren berrigailu. Kandalario garbi, negua geldi*³

Gure artean ez da kasualitate Kandelario, San Blas eta Santa Ageda bezalako jaiak ospatzea. Gabon jaien ospakizunaz sarritan esan izan dena aitortu behar da oraingo honetan ere. Kristo aurretik bizi ziren herrietan uda eta neguko solstizioak, hots, eguna luzeen eta laburren den garai aldia, era berezia ospatzen ziren. Eta Elizak kristautu egin zituen jaiak Jesusen jaiotzaren ospakizuna bertan ko-

(3) *Esaera zaarren bilduma berria (II)*, Auspoa 1985, 32. or.

katuz. Jaiegunotaz ere beste horrenbeste aitor dezakegulakoan gaude.

Zeintzuk izan dira Gabonetan ezinbesteko izan diren elementuak?

Egurra, Sulla deituriko enborra, Gabon jaietan sukaldeko sutan pizturik irauten zuena izan da jaialdiaren erdigune. Horra hor, beraz, egurra ezinbesteko osagaia.

Ura ere ez da urruti aurkitzen ospakizunotan. Ain biziarazlea den urak osagai esanguratsua Urteberri egunean Urdianen "*Ur goiena, ur barrena*" gogoratuz herriko iturritik goizaldean ura hartu, bedeinkatu eta etxeko lurraldeak bedeinkatu nahi izan dituztenean.

Egurra eta urarekin batera, argiaren esanahia ere barne barnean aurkitzen dugu. Eguna luzatzen hasten den une berean ospatzen da bizialdi berri baten hasiera.

Gatozen orain Santa Ageda bezperara. Santa Ageda jai inguru horretan badira beste bi jai arrakastatsuak: Kandelaria eta San Blas. Argiaren jaia lehenengoa, fruitu eta janaria bedeinkatzeko erabili ohi den urarena bestea. Horra segidan ospatzen diren bi egun esanguratsu

Santa Agedako kopletan, bestalde, ezinbestekoa da, Eguberritan bezalatsu, egurra. Taldeak makila eta guzti agertzen dira kantari. Santa Agedaren koplak makilaz markatutako erritmoaren arabera kantatuko dituzte erritmo pausatuan.

Makila hotsa, ordea, erritmoa finkatzeko bakarrik ote? Ez ote da biziberritzen ari den lurrari esnarazteko deia, lurra bera esnatzeko beste modu bat?

Gabon jaien ondorengo ibilbidean Elizak jai hauek izendatu izan ditu. Historian gertatua gogoan hartzen baldin bada, berriz, badakigu Elizak jakin izan dituela kristau ospakizunak kristautu aurreko beste hainbat jairekin uztartzen. Ez ote dugu, inauteri aurretik izadiaren baitan garatzen ari den fenomeno horren baitan jaiegun hauek erroztzen direla ikusi behar?

Santa Agedako koplak kantak ere badu beste ezaugarri bat: eskearena. Taldeak eskatu egiten du etxez etxe, kale nahiz tabernetan. Eskerako ohitura zabaldua egon izan da gure artean. Abenduaren 6an San Nikolasetako haurren eskea, Gabon egunez egin ohi dena,

Santa Agedakoa, inoiz Inauterietan ere egin ohi dena. Usadioak usadio, eskearen zeregina ere garbi ageri da ospakizun honetan. Bildutakoa, ordea, norentzat? Ez da beti jakineko hartzailea izaten. Batzuetan taldeak berak lagun artean afaria egiteko, soldaduskara joan behar duten gazteentzako, garai batean kanpajoleentzako, behartsu edo premian daudenentzako...Oso kontuan hartzekoa da eskearen zeregina hau. Izan ere, uste baino erantzun eskasa jasoz gero, emalleak bereak eta bi entzuteko arriskua izango du gainean.

Kontua da, Santa Ageda bezperan kantatzeko ohitura oso zabaldua dagoela. Baserriz baserri, etxez etxe, kalez kale, aspaldidanik kantatzen direla bere koplak. Harrigarri gertatzen zitzaigun, esaterako, Zallara ikastera joaten ginen euskaldunoi, euskara aspalditik erabat galdua zegoen herri hartan koplak nolako gogoz kanta ohi zituzten ikustea. Koplari lanetan ari ohi zenak eta beste bizpahiru lagun izan ezik, gainontzekoa euskaraz ez zekitenak aritu ohi ziren Santa Ageda bezperan kantatzen.

Gorbeia inguruan nola ospatzen duten ederki asko azaltzen digu Juan Manuel Etxebarria ikerlariak *Santa Ageda en los alrededores de Gorbea en Bizkaia*⁴ deituriko aldizkari elektronikoa.. Zeberion, esaterako, egunez umeak ibili ohi dira kantari eta kintoak arratsaldean. Bildutako diruarekin bazkaria egin ohi dutela diosku egileak.

Etxe batera hurbildu ondoren, errezatu ala kantatu egin behar zuten galdetu ohi zuen taldeak, batez ere garaisu horretan hildakorik edo baldin bazen errezatu egin ohi zen kantatu ordez.

Kantatu beharreko etxea nolako, kopla bera ere halako gertatu ohi zen. Honek esan nahi du koplariak zaindu egiten zutela, nori eta zer kantatu aurrez erabakiz.

Oles ta oles bakean
Kantetan asi gaitean
Agate Deuna kantetan gatoz
Etxe ontako atean.
Kantauko badu esan deiskula
Iñor badago etxean

(4) Euskonw's Media, 19. zk.

Iñork ezetzik eztiño eta
Kantetan asi gaitzezan.

Kintoek kantatu izan dutenean, berriz, soldaduska gertu dutela
gogorarazi nahi izan diete etxekoei:

Soldadu goaz soldadu
Amaren seme sobradu
Borondaterik baldin badago
Limosna bila gatoz gu.
Limosneruak Santa Ageda
Ez da astean astean
Urtean baten eta beratan
zezeilaren Sean.

Manu Etxeberriak ongi aipatzen ditu kopla entzuleen araberako
kantaren mamia: etxeko jaunari, abadeari, alkateari, etxekoandreari,
alargunari, seme-alabei, tabernariari eta, nola? baita limosna luzatze-
rakoan xuhur agertzen zenari ere:

Erbia dago azatzen
errikumea babatzen,
etxe ontako uzaba jauna
samarañoko kakatzen

Erbia eta errikumea baratzean kokatzen badituzte ere, etxeko
jauna, aldiz, simaurretan.

San Martinek jasotako beste testu hau ez da batere gozoa. Ez
zuten, nonbait, apaizak emandako limosnan esperantza handirik:

Kura-parroko mondongo
ik ez dok asko emongo
ik emondako lismoniakin
ez juago asko edango.

SANTA AGEDAKO KOPLAK ERRENTERIAN
DEUN AGATAREN ABESTIAK

1965. urtea

Aintzaldu zagun Agate deuna
Biar da bere eguna
Errendeirako eska zalogun
Pakea ta osasuna.
Agur Errenderiko erriya
Eta erritar maiteak
Zueri besarkatzera gatoz
Emen gabiltzan gazteak.

(1)

Erriko etxe aurrean gaude
Gazte talde au kantatzen
Aintziñako oitura zarrak
Berriro emen agertzen

Agur emengo agintariyak
Zaindu gure Errenderiya
Beti izandu dalako bera
Euskal gizonen erriya.

(3)

Deun Agate ospatzen gabiltz
Erriko kale danetan
Gure aitonen oitura zarrak
Berriturikan gau ontan.

Saia gaitia zar eta gazte
Oiturak onak gordetzen
Eta gure Errenderi onetan
Alai ta pozik bizitzen.

(2)

Alkate Jaunarengana gatoz
Gau onetan agurtzera
Eta berakin bizi diranai
Zoriona opatzera.

Gure erria ondo zainduta
Danak zurekin batean,
Zai gaitian anai bezela
Bizi izaten pakean.

(4)

Gure zaindari Magdalenari
Eske gatoz gau onetan
Zabaldu zale maitetasuna
Erriko sendi guztitan.

Lagundu Magdalen Done Orrek
Zure erri au Zerutik
Zorionean jarraitu dezan
Jaungoikoaren bidetik.

(5)

Erri onetan Bikaio Jauna
Degu artzai berezia
Eska zaiogun Jaunai beretzat
Argitasun ta grazia

Bizi gaitean erritar danok
Gure eleizan barruan.
Egun batian alkartutzeko
Guztiok pozik zeruan

(7)

Soldaduzkako eguna datoz
Emengo gaziarentzat
Deun Agatei ezkia gatoz
Laguntza guztiarentzat.

Artu gaitzazu Santa on orrek
Beti zure babesian
Emendik urrun bizi gaitian
Jaungoikoaren birian.

(6)

Gure erria utzita goaz
Soldaduzka egitera
Ez gerade gu nai orduko
Berriz etorko etxera.

Batzuek Afrika aldera goaz
Itxas ontzitan besteak
Bañan ez ditugu iñoiz aztuko
Gure senide maiteak.

(8)

Euskal erriko gizon argia
Koldobika Mitxelena
Artu ezazu zure erritarren
Agurrik maitekorrena.

Maixu zerade Euzkal lanetan
Maitia dezu Euzkera
gure hizkuntza maitiarentzat
Onarri ona zu zera.

(9)

Agur bero bat Korta Jaunari
Emengo gazte taldeak
Eskerrak ere biotzetikan
Euskal antzerki taldeak.

Orain bezela aurrera ere
Lan orretan zuk jarraitu,
Guk lagunduaz antzerki oiek
Bihar ditugu goratu

Errederi'n Otsailako 4an
1965

1976. urtea

Urte honetan hiru ahotseko koru gisa azaldu zen Ereintza, bakar-lari gisa tenoreak kantatzen zuelarik. Beste zenbait herrietan, Bizkaian esaterako, badira ahots desberdinetan kantatu ohi duten kor-roak. Horrelakoetan kantatutako kopia multzoa txikiagoa izan ohi da.

Aintzaldu zagun Agate deuna
biar da bere eguna
Errendeirako eska zaiogun
pakea ta osasuna.

Deun Agate ospatzen gabiltz
erriko kale danetan
gure aitonen oitura zarrak
berriturikan gau ontan.

Zala gaitia zar eta gazte
oiturak ona gordetzen
eta gure Errenderi honetan
alai ta pozik bizitzen.

Eskean gatoz baña ez gera
ez ijito ta ez pralle
Santa Ageda atera gaitu
kaletara kantatzalle.

Agur Errenderiko erriya
eta erritar maiteak
zueri besarkatzera gatoz
emen gabiltzan gazteak

Ura gustatzen zaigu eskuak
ta arpegia garbitzeko
baña napar beltza bear degu
eztarria bustitzeko.

Txanpaña ere edango genuke
norbait balitz emateko
patarra ez da gaizki etortzen
bizkarreko otza kentzeko.

Taberna onetan kajoitxo asko
danak giltza ta zerralle
Estraperloko kajoitik bota
peseta pare bat mille.

1977. urtea

Ikus daitekeen bezala, abestutako kopia sorta hazi egin dela bistan da. Kopia mota desberdinez osatutako sorta da. Badira sarrera gisa kantatu ohi direnak. Besteak multzo desberdinetan banatu dira. Taldeak koplak kanta ahala aukeratuz osatuko du saioa. Azkenean, gogoan izan, hor ageri den Bar Romeral taberna Santa Maria kalean, oraingo Gaztelu jatetxean zegoela eta urtero jaso ohi zuela ereintza-tarren bisita Urte Zaharretan zein Santa Ageda bezperan.

Sarrerakoak

Zorion, herri hontako denoi
oles egitera gatoz:
kalerik kale ohitura zaharra
aurten berritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz
ezta ere oinetakoz:
baina eztarriz ondo gabiltza,
ta kanta nahi dugu gogoz.

(A Motakoak)

Euskal Herrian egin genduen
zorioneko jaiotza,
baina ez dugu estimatuzten
hizkuntzaren baliotza.
Guraso maite eta lagunak
mintzoerari laguntza:
bestela gure ama Euskerak
gurekin du heriotza.

(B Motakoak)

Gure kantua orain bihotzez
Errenteriako txokoari
herri hontako seme guztiak
ekiten dio lanari.
Lehendikan ere gure aitonak
egina zuten nabari,
haien eskutikan jaso dugu
gazteok fruitu ugari.

(D Motakoak)

Alkar hartuta gabiltza hemen
neska ta mutil gaztiak,
zuen bihotzak alaitzearren
hona gure abestiak.
Batzutan alai bizitzen gera,
beste batzutan tristiak;
gure laguntza eskeinitzera
etorri gera guztiak.

Santa Ageda bezpera dugu
Euskal Herriko eguna,
kale guztiak kantuz pozteko
aukeratua duguna.
Santa maitea gaur hartu dugu
gure bideko laguna;
haren laguntzaz bete gentzake
egun hontako jarduna.

Euskera dugu gure hizkuntza,
gure lurraren graziko
Eta ez gera hau baztertuzten
txiki geranok hasiko.
Beste hizkuntzak ziur ditugu,
oraindikan ikasiko
beste guztiak ederki dira,
gurea lehendabiziko.

Urte berrian aurrera goaz
lana gogotsu egin ber;
gazte geranok mundu honetan,
oraindik asko jakin ber.
Ez ditezela gure ingurura
gauza danak etorri oker;
Ahalguztidezun, gurekin izan
danangatikan mila esker.

Zeruko izarrak jarri dira
gure Herriari begira;
baina argirik ez da iristen
ama askoren atarira.
Ta ama horiek samindurikan
ilunpean bizi dira:
ekarri Jauna ama on hoiri
falta zaioten dizdira.

Bar Romeralen

Romeraleko taberna hontan
bixitatxo bat arina;
etxe hontako Bautista Jauna
oso leiala ta fina.
Mesede eder eta ugari
euskal giroari egina;
herriko neska eta mutilak
maite duguna jakina.

1980. urtea

Kopla gehientsuenak lehendik kantatuak izan dira, horrela ageri da ohar gisa jarri ditugun argibideetan. Hemen behean ageri direnak berriak dira.

Tabernetan

Ura gustatzen eskuak
ta arpegia garbitzeko
baina napar beltza behar dugu
etzarria bustitzeko.
Txanpaña ere edango genuke
norbait balitz emateko,
pattarra ez da gaizki etortzen
bizkarreko otza kentzeko.

Eskean gatoz baina ez gera
ez ijito ta ez pralle,
Santa Agedak atera gaitu
kaletara kantatzalle.
Taberna hontan kajoitxo asko
danak giltza ta serraille,
kontrabandoko kajoitik bota
pezeta pare bat mille

Mutil taldea ementxe gaude
danok gazteak eta gai
mundu guztia igaro dugu
itxas, legor, mendi, zelai.
Neskatx ederrak utzi ditugu
negar malkotan gure zai,
baina guk neska danen artean
emengotxe alaba nahi.

- Lehendik kantatuak:
Zorion herri hontako denoi... (1977)
Euskara dugu gure hizkuntza ... (1977)
Santa Ageda bezpera dugu... (1977)
Gure kantua orain blotzez... (1977)

1982. urtean

1980an kantatu ziren koplak kantatzeaz gain, badira urte hone-
tan bertso bi desberdinak:

Aspaldi hontan ura garesti
dabil esne ta ardotan
matz gutxi izan arren, ardorik
ezta falta tabernetan.
Jesusek ura ardotu bazun
Kanaango eztaietan,
orain ikasle azkarrak sortu
zaizkio ardangeletan.

Zelai erdian loreak argi
larros, krabelin ta lili,
etxe ontako etxeakoandreak
Ama Birjiña dirudi.
Etxe hontako urdaiazpiko
asko kakutik zintzilik
ta lukainka gorriak ugari
poltsa betetzeko guri

_____ko taberna hontan
bixitatxo bat ariña,
etxe hontako _____jauna
oso leiala ta fiña.
Mesede eder eta ugari
Euskal giroari egiña,
Herriko mutil taldea honek
Maite duguna jakiña.

* Lehendik ere kantatuak:

- Zorion herri hontako denoi... (1980)
- Euskara dugu gure hizkuntza... (1977)
- Ura gustatzen zaigu eskuak... (1980)
- Eskean gatoz baina ez gera... (1980)
- Santa Ageda bezpera dugu... (1980)
- Gure kantua orain biotzez... (1980)

1983. urtean

Alaitu Ereintzako gazteak
kalean gogoz abestu,
Erretereria nolakoa zan
ez dezagun iñoiz ahaztu.
Ogeita bost urte tzeko eran
guk behar dugu jarraitu
gure lanak Euskalerrri alde
beñez ditezen bukatu.

Deun Ageda zugana gatoz
Ereintzatarrak eskean,
gure lanari jarraituzeko
era zure beharrian.
Artu gaitzazu Santa on horrek
beti zure babesean,
zure laguntza izan dedilla
beti gure elkartean.

Ereintzatarrak hemen gabiltza
Deun Agate bezperan,
ohitura zar hau galdu ez dedin
beñere gure artean.
Ogeita bost urte eitera goaz
gu gabiltzala lanean
Euskal Herriko ohitura zaharrak
azaldu nahirik kalean.

- Lehendik ere kantatuak
Zorion herri hontako denoi... (1980)
Santa Ageda bezpera dugu... (1977)
Aspaldi hontan ura garesti... (1982)
Zelai erdian loreak argi... (1982)
_____ko a hontan (1982)
Ura gustatzen zaigu eskuak (1982)

1984. urtea

Gure kantua orain biotzez
Errenteriako txokoari,
erri hontako seme guztiak
ekiten dio lanari.
Lendikan ere gure aitonak
egina zuten nabari,
haien eskutikan jaso dugu
gazteok frutu ugari.

Euskal Herrian egin genduen
zorioneko jaiotza,
baña ez dugu estimatutzen
hizkuntzaren ballotza.
Herritar maite eta lagunak
mintzoerari laguntza,
bestela gure ama Euskerak
gurekin du heriotza.

- Lehendik kantatuak
Zorion herri hontako denoi... (1980)
Deun Agate ospatzen gabiltz. (1965)
Euskara dugu gure hizkuntza... (1977)
Ura gustatzen zaigu eskuak... (1982)
_____ko taberna hontan... (1982)
Santa Ageda bezpera dugu... (1977)
Aspaldi hontan ura garesti... (1982)
Zelai erdian loreak argüi... (1982)

1985. urtea

Magdalena Ermitari

Santa Agedaz gatzoz
arren nahi degu hitz egin,
Madalenako ermita aurrean
Santa Maitea hots egin.
Lanikan gabe zar ta gazteak
nola ez dugu atsegin,
otoltz gugatik Santa Madalen
ondoren ona sor dedin.

Santa Madalen ta Santa Ageda
taldeabikote zoragarria,
bata gure zaindari, bestea
siziliatar martiria.
biok Zerutik gorde zazute
gu bizi geran herria,
kristau bidetik lortu dezagun
Billatzen dan aberria.

Santa Magdalena zu zaitugu
gure herriko zaindari,
gazte talde hau eskean gatzoz
gaurko honetan zuri.
Hots egiozu goiko Zeruan
gure Jaungoiko Jaunari,
Errenteira bidali ditzala
zorion ta bake ugari.

Mikela-Zulori

Eleiz alboko Mikela-Zulo
pauso bide bat zeranez,
hainbeste kristau zure azpitik
lau aldetara eramanez.
Indartsu eta txukun egiña
behar guztiei erantzunez,
zu egindako gizonetzkoak
ongi ziraden zentzunez.

Mikela-Zulo zu bai zerade
leku hotz eta ospela,
baina Errenteriarentzat
goxoa eta epela.
Gure eleizak oraindikan
zu zaitu bere magala,
jarrai zauden lekuan betiko
eman gaitzazun itzala.

Aterik gabe gau eta egun
lau haizietan barrua,
neure musika egiten dakit
xistua eta orrua.
Sortalde edo ipar aldetik
edo hego haize harrua,
nigan inguratzen dan guztiak
estal dezala larrua.

1985. urtea. *Tabernetan*

Ama Euskera gaixo dagola
askotan dugu entzuten,
baina bera indartu dedin
guk zer diogu egiten.
Saia gaitezen danok batera
hasi gaitezen aurtan,
oraindik denbora badaukagu
guztia ez dedin eten.

Gaurko gabean honuntza gatoz
tragoxka bat egitera,
inportik ez bazaizu nagusi
laister batean atera.
Txarra zuretzat uztazu eta
ona guretzat aukera,
dana hustutzen baldin badugu
eskatu Errioxara.

Etxe honetan euskal giroa
nolatan dugun aurkitzen,
fameli jatorra zeratela
benetan dugu pentsatzen.
Herrian ondo portatu eta
aberria maitatuzten,
bide hortatik jarrai zaizute
euskal giroa indartzen.

- * Lehendik kantatuak
Zorion herri hontako denol... (1980)
Santa Ageda bezpera dugu... (1977)

1986. urtea. *Xenpelar Etxea*

Xenpelar bertsolaria bizi izan zeneko etxe aurrean ageri da kantari Ereintza. Bertsolari errenteriarra eta hark utzi zigun ondarea aipatzen dira batetik, eta etxea bera, berritua, bertsolaritzaren onerako izan dadin gooa adierazten da bestetik.

Gure herria alaitzearren
egin dugu irteera,
Hemen gabilza haruntz honuntza
kantuz gora eta bera.
Santa Ageda etorri zaitez
gazte hauei laguntzera
alaitasun hoi bete dezagun
antzinakoen antzera.

Gure herrian Euskara omen zan
aintzinatikan bakarra,
beste hizkuntzak sartu ziren ta
galdu genduen indarra.
Baiña oraindikan bizi zera
sumatuzten zaizu garra
ta galtzen uzten badugu
sortuko zaigu negarra.

Etxeko andre atera zazu
intxaurra eta pikoa,
ardo hutsarekin ez dugu ta
gizenduko lepoa.
Horrelakorik ez badaukazu
berdin zaigu eltzekoa,
baina dana dala izan dedilla
borondate onekoa.

Zure babesa izandu zuen
gure Xenpelar haundiak,
eta zenbat bertso ote daude
zure hormetan gordiak.
Zure gelaren batean itxi
zituen harek begiak,
bañan oraindik irauntzen dezu
Jaungoikoari graziak.

Xenpelar pakezalea zela
ezin dugu guk ukatu,
zure barru hortan zenbat bertso
zituen harek moldatu.
Pakearenak haundiak dira
iñolaz ezin dira ahaztu,
bera hil zen baña bere bertsoak
hemen dirade gelditu.

Etxe zar bat ziñaden len eta
orain zaituzte berritu,
kultura mota guztietako
egin zaituzte zu gertu.
Bertsolaritza izan dedilla
egiten degu eskatu,
lendik Xenpelar izan zenduan
orain herria onartu.

Santa Maria kaleko alpargatari

Askotan gai xumeetara jo izan dute Santa Ageda bezperan koplariak. Oraingo honetan Santa Maria kalea, Madalen kalearekin kantoj egiten duen inguruan, zintzilik ageri zen alpargata handiari kantatzen diote. Bistan da aipatu alpargata solas eta jolasbide bilatu zela.

Hor zintzilikan arkitzen zera
aspalditik alpargata,
zerbait adierazten duzula hori
hori garbi daukagu ta.
Bertan egiten zizuten eta
gainera eskuz josita,
gero neska-mutilak oinetan
nolako gauza polita.

Zeiñen pozik pasatzen genduan
alpargata zarrarekin,
bi xoxekoak boteaz gure
umore onenarekin.
Sartzen ezunak baxo erdia
ordaindu behar harrekin,
beste denborak ziren haiek
gelditu dira zurekin.

Zu hor zintzillikan zaudela
gutxinez laurogei urte,
Santa Maria kale honetan
zu zenbat zaituzte maite.
Kale hontako gora beretan
nolaz hartu dezun parte,
bere gidari izaten jarrai
Jainkoak nahi duan arte.

• Lehenago kantatuak:

- Zorion herri hontako denoi... (1980)
- Ama Euskera gaixo dagola... (1985)
- Gaurko gabean honuntza gatoz... (1985)
- Santa Ageda bezpera dugu (1977)
- Gure herria alaitzearren... (1985)
- Gure herrian Euskara omen zan... (1985)
- Etxe honetan euskal giroa... (1985)
- Etxeko andre atera zazu... (1985)

1987. urtea. *Kultur etxeari*

Madalen kalean, gaur egun Liburutegia den eraikin horretan zegoen garai batean Goardia Zibilen koartela. Geroztik ordea, transizioak aurrera egin ahala, goardia zibilek alde egin zuten Kultur Etxe bilakatu zen etxe hori. Hainbeste

Kultur Etxe bat beharrezkoa
nola izaten dun Herriak,
ta zuri egin ziñutelako
eskertzen du Erreterriak.
Zure barruan indartzen dira
kultur onez gaztediak,
jarrai ezazu bide hortatik
ez beñe itxi atiak.

Lendikan kuartela ziñan eta
orain kultur etxia,
zure barruan gazte jendiak
badauka zer ikasia.
Gure herriko ohitura zarrak
musika ta irrintzia,
zure barrutik irtetzen dana
euskal giroaz jantzia.

Horrela aldatu zaituztela
 iñorentzat ez da kalte,
 zure barruan len izaten zan
 hamalka zigor ta kate.
 Orain berriz guzti guztio
 zenbaiteraño zu maite,
 Herria zerbitzen jarrai zazu
 ala eskatzen zaizun arte.

Zumardiko Iturri Txikiari

Oraingo honetan Zumardi Txikiko Iturria dute kantagal. Iturriaren historiaren ñabardurak ere aipatzen dira, lehenago merkatu zahar-raren aurrean, Leku Zarra tabernaren inguruan zegoen iturria aldatu baitzuten Zumardi Txikira.

Iturria beti izan ohi da
 plaza batian txukuna.
 zumardi honetan nolaz zeran
 beharrezkoa zerana.
 Nahiz ta ondoan haundi ta ederra
 ur asko botzen duana,
 herriko jator guztiak zuri
 zaitugu bai maitasuna.

Merkatu zarraren aurrian ta
 Leku Zarreko ertzian,
 egondua ziñan iturritxo
 makinatxo bat urtian.
 Ur goxo askoa botzen zendun
 uda negu gogorrian,
 ta orain jarri zaituzte zuri
 zumardiaren erdian.

Iturritxo hor jarri zaituzte
 ur goxoa emateko,
 iñorentzako kalte ez da ta
 egongo al zera betiko.
 Gure barrenak berotu eta
 behar danean preskatzeko,
 gure billobak jakin dezaten
 ura dela beharrezko.

Leku Zarra tabernari

Leku Zarra taberna erabat berritu zutela eta, abagune egokia zen hura kantarientzat, eginikoa goraltzeko eta, bide batez, aurre-

rantzean bere nortasunari eutsiz joka zezaten eskatzeko. Esangurat-sua bigarren bertsoari ematen zaion amaiera: *eta zabalik egon dedilla herriarentzat atia.*

Leku Zarra zenbaiteño
zaituzte zu dotoretu,
lendik ere ez ziñan itsusi baña
orain txukuna agertu.
Baña txoko honek guretzako
hamaika gorantzi ditu,
zenbat eta zenbat baxo erdi
zure barruan dira hartu.

Guk nahi genuke Leku Zar maite
len bezela izatea,
ta ez edertu zaituztelako
giroa aldatutzia.
Len bezelaxe jarrai dezazu
onartu zar da gatzia
eta zabalik egon dedilla
herriarentzat atia.

* Lehenago kantatuak:

- Zorion herri hontako denol... (1980)
- Ama Euskera gaixo dagola... (1985)
- Gaurko gabean honuntza gatoz... (1985)
- Santa Ageda bezpera dugu (1977)
- Gure herria alaitzearren... (1985)
- Gure herrian Euskara omen zan... (1985)
- Etxe honetan euskal giroa... (1985)
- Etxeko andre atera zazu... (1985)

1988. urtea. *Don Robertori*

Don Roberto Agirre apaiz ataundarra urtetan izan zen Erreteriar-ko erretore. Frankismoaren garaian lan egin beharra egokitu zitzaion. Gizon handia, azkarra, nortasun handikoa eta hizlari aparta. Bikainak izan ohi ziren ospakizun berezietan harek egin ohi zituen sermoiak. JOC eta HOAC bezalako kristau langile taldeak babestu izan zituen.

Ereintzak

Gure ondoan hemen daukagu
hain gurea den eliza,
bañan gau hontan oroitu zagan
bertan bizi zan apaiza.
Don Roberto zan apaiza hura
izan zan gure artzaia,
eman zenion artalde honi
hain behar zuen babesa.

Don Roberto zu izandu ziñan
gu guztiontzat artzaia,
batzuentzako gizon zorrotza
besteentzako alala.
Zu bezalakoa ezin da izan
iñorentzako etsaia,
eliz barruko gizona ziñan
ta izandu ziñan garaia.

Gizon bat gure elizarako
 gañera zan erretore,
 Ataundik etorria zan eta
 Erreterientzat lore.
 Guztioi maite guztiontzako
 egiña zuan fabore,
 gure ondotik joan da betiko
 ez degu ahaztuko beñere.

Kapitain Etxeari

Kapitain-enea kaleari bertan aurkitzen den Kapitain Etxeak ematen dio deitura. Udalak eskuratu eta eraberritua, gaur egun udal zerbitzuetarako erabiltzen den etxea da. Kultura alorreko zereginak burutzen dituen udal saila bertan aurkitzen da. Agian, hainbat herritarri ezezazun zaizkion zenbait xehetasun biltzen da bertso hauetan.

Zer oroipenak edestirako
 dauzkan Kapitain Etxeak,
 jakiñik bertan bizitu ziran
 gudako itxas gizonak.
 Matxino kapitain ta semea
 ziran Erreterikoak,
 itxas gudetan egintza asko
 biok egin zituztenak.

Ordu ezkeru etxe honetan
 zenbait gauz dira gertatu,
 era guztietako jendeak
 bertan ziraden elkartu.
 Herrenak eta behartsuak hemen
 ondo ziran antolatu,
 Magdalena izenego egoitzak
 bertan zituen babestu.

Koldo Mitxeleneri

Mila bederatziehun eta hamabosteko abuztuaren 20an jaio zen Koldo Mitxelena Erreterian. Abertzalea, gerrak eta bere ondorioek bete betean harrapatu zuten. Estudiatzeari ekin zion kartzelan eta ez nolanahi gainera. Maila handiko gizona, herrigintzan murgildua, era-

Nahiz kapitain bezela ezagutu
 Matxin zan gudal burua,
 eta itxas guda guzietan
 izan zan ausartsua.
 Bere egintzak eskertu nahirik
 bera bazan famatua,
 eskeiñi zioten etxe hontan
 dagoen arma harria.

Urteak pasa ta etxe zar hau
 zegon erori zorian,
 baña Udalak asmo eder bat
 hartu zun ordu onian.
 etxe zar hura dana berritu
 Ta daukazute aurrean,
 erakusketak ta kultur gauzak
 presta ditezen barruan.

gin zuzena izan zuen, besteak beste, euskararen batasunean. *Esker beroa eman deiogun hainbeste egin zuenari*, kantatuko diote eraintzatarrek Goiko Kaleko 6.an bizi izan zen etxe aurrean.

Erreteriko seme jakintsu
Koldobika Mitxelena,
beti goiburu izan zituan
Aberria ta Euskera.
Izandu ziñan euskerarentzat
eredu argitsuena,
goratu zagun bere herritarrek
gau hontan bere izena.

Bera jaio zan etxe aurrean
hemen gerade kantari,
bere herrian oroitzapena
azaldu nahirik berari.
Esker onena eman deiogun
hainbeste egin zuanari,
jarraiturikan Euskeran alde
berak egin zun lanari.

Oharra: Horretaz gain, lehendik jasotako ohiko koplak.

1989. urtea. *Xabier Olaskoagari*

Erreterian urte zailetan euskararen alde etengabe aritu den herritarra dugu Xabier Olaskoaga. Langilea, umila, alai, herrigintzarekiko sentibera, gazteekiko harremanak lanak jakin izan duena... Madalen Deunari eskainitako ereserkiaren egile, hainbat musika doinuri letra jarri izan dion gizona, Parrokiko koruan zuzendari urte askotan. Familiarekin batera, euskara, musika eta Erreteria bera izan du bere bizitzaren erdigunean. Ereintzak berarekiko duen zorra aitortzeaz gain esker oneko ageri zaio Xabierri.

1

Gabon Jainkoak Xabier eta
berdin ere etxeakoak,
Santa Ageda bezpera hontan
giñaden etortzekoak.
Eskertutzeko denen aurrean
herrian egindakoak,
hala ta guztiz izango gera
zorretan gelditzeoak.

4

Zure babesa izango degu
herriko lan guztietan,
Ereintzatarrok eskertu nahiez
gabilitza gaba honetan.
Xabier lagun ez dugu ahaztuko
esaten degu benetan,
zu bezelako lorerikan
ez dago toki askotan.

2

Hartua degu zure etxe
karrika edo karkaba,
bertsoarekin deitutzen dugu
etxe hontako aldaba.
Gure maitasunik beroena
Xabier nahi dugu laga,
Santa Ageda ohiturarekin
igaro nahirik gaur gaba.

3

Xabier omendu nahi zaitugu
benetan dezu merezi,
zure ondoan saia geranak
zenbat degun ba ikasi.
Lana ugari eskatu zaizu
ez dlozu egin igesi,
borondate on onenarekin
izan dute hainbat grazi.

5

Gizon bat izandu zera beti
maita dezuna herria,
helburu bezela euskera ta
Kultura mota guztia.
Berdin zitzaizun abesti, kirol,
dantza edo antzerkia,
guztia eskertu nahi zaitugu
Xabier maitagarria.

6

Amets hau dugu lagun Xabier
gure bihotzan barrenez,
herriko seme leial bizkorra
indartsu euskal almenez.
Hemendik lasai joango gera
agur ona eramanez,
gure maitasun beroarekin
bihar zerorren omenez.

ADABAKIAK